

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Ibilgailuen errolda jendaurrean jartzea eta zerga kobratzea

Urkabustaizko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2019an ordaindu behar dutenen errolda behin-behineko onetsi ondoren, espedientea hamabost egun baliodunegongo da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa epea maitzaren 2tik ekainaren 14ra izango da, egun biak barne.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu. Zergadunei jakinarazten zaie ordainketen banku helbideratzeetako altak edo aldaketak Urkabustaizko Udalean izapidetu behar direla.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekaruak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Urkabustaiz, 2019ko otsailaren 25a

Alkatea

BEGOÑA GANZABAL ZURBITU